



# STEEEILAS

## Irakaskuntza publikoa



Lege gordailua: BI-2729/00

2009ko ekaina

79.zenbakia



# AHAL DUENAK AHAL DUENA

**ARABA:** Eulogio Serdan, 5

**BIZKAIA:** Nikolas Alkorta, 3 (Zabalburu)

**GIPUZKOA:** Baso-Txiki, 30-34 (atzealdea)

**NAFARROA:** Descalzos, 72 (lonja)

01012 Gasteiz

48003 Bilbao

20015 Donostia

31001 Iruñea

tel: 945 14 43 02

tel: 944 10 02 98

tel: 943 46 60 00

tel: 948 21 23 55

fax: 945 14 43 02

fax: 944 10 13 60

fax: 943 45 36 27

fax: 948 22 97 90

[araba@stee-eilas.org](mailto:araba@stee-eilas.org)

[bizkaia@stee-eilas.org](mailto:bizkaia@stee-eilas.org)

[gipuzkoa@stee-eilas.org](mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org)

[nafarroa@stee-eilas.org](mailto:nafarroa@stee-eilas.org)

# aurkibidea

## Irakaskuntza Publikoa

Gobernu berriaren erabaki okerrak	2
Maiatzaren 21 kalean	3
Jangelak greban, hau kalapita!	4
“kitate tu pa poneme yo”	5
Lan Hitzarmenaren iraingitze data	5
EPE, epaimahaiak eta txapuzak	6
Euskara, Ikastolak eta festa	7
Lan Osasuna	8
Hezkuntzako Delegatua izaterik nahi?	8
Zerbitzu Minimoak eta Kontziliazioa	9
Laburrak	10
Nafarroa	11
Garoña itxi!	12
Eskola Publiko Laikoa	13
Denontzako Kalitatezko hezkuntza	14

## Hezkuntzako Laboralak

09-10 Ikasturterako aurreikuspenak	1
Bakante gabeko ordezkapenak	1
Garatu	2
Lan Hitzarmenerako proposamena	2

## GOBERNU BERRIAREN ERABAKI OKERRAK

Lau urtean behin gertatzen den moduan, Legebiltzarra berritzeko hauteskunderen ondorioz, gobernu berria dugu EAEn. Publikoki azaldu dugun bezala, euskal gizartearen sektore batek bere ahotsa isildua izateak, osatu den legebiltzarraren zilegitasunaren itzalak agerian uzten dituela berretsi nahi dugu.

Askotan adierazi dugu ia ikasturte osoan agintean izan den Hezkuntza Sailaren jarduna ez dela onartzeko modukoa izan. Laburtuz, ez da aurrerapausorik eman ez langileon lan baldintzen hobekuntzan ezta sare publikoaren indartzeko prozesuan.

Gobernu berriari ere luzatu dizkiogu gure oinarrizko aldarrikapenak. Aukera izan dugu bilera protokolario batean lehen kontaktu zuzena izateko. Aurkezpen ekitaldi honetan ez da inolako gai-mamitsurik izan. Hala ere, gure kezkak eta proposamenak plazaratzeko aprobetxatu dugu.

Ikusi beharko dugu nola zehazten dituzten bere jardunaren lerro nagusiak, baina dagoeneko kezkatzeko arrazoi pare bat badugu. Ezin aipatu gabe utzi maiatzaren 21eko greba orokorraren deialdirako irakaskuntzan ezarri zituzten gutxieneko zerbitzuak. Greba saboteatzeko agintekeri politikoa izateaz gain, nabarmen gelditu da zaintzaren aitzakian, ikasleen segurtasun kontuak erabat alboratu dituztela. Hemen ere arazorik ez zegoen tokian (greba eskubidea - lanerako eskubidea) arazoa sortu dute, beren irizpide politikoak besteen eskubideaz moztortuz, eta lehenengo aldiz halako aurrekari atzerakoia inposatuz.

Elebitasunaz eta euskararen presentziaz aurreratu dituztenak sumatutako bidetik etorri dira zoritxarrez, hizkuntzen arteko berdintasun demagogikoa aldarrikatuz, eta euskarak behar duen diskriminazio positiboari galga jarritz. Ezin dugu onartu ingelesaren aitzakia euskarak behar duen lehentasunari trabak jartzeko.

Berriro esango dugu, hezkuntza komunitate zabalean eztabaida hauek, oraingoan plazaratu diren bezala, gaindituta daude. Oso bazterrekoak dira euskararen eta euskarazko irakaskuntzari oztopo ipini nahi dizkietenak. Benetako kezkak bestelakoak izaten dira: ikasle guztien hizkuntza ezagutzak nola handitu, euskararen erabilera nola bultzatu, ahozkotasuna lantzeko nolako baliabideak erabili, hizkuntza desberdinen irakaskuntza nola koordinatu eta indartu ...

Bada garaia eztabaida antzu horiek baztertzeko eta arretra jartzeko benetako erronkan: nola lortu gure ikasle guztiek euskararen ezagutza bermatzea testuinguru eleanitz batean.

Ezin esan bide onetik hasi direnik, ez langileen eskubideei begira, ezta eskola publikoak bermatu behar dituen ikasleenei begira ere. Beti dago zuzentzeko aukera, horretarako borondaterik izanez gero. Emango al digute argudioren bat esperantza txikiren bat izateko? Hori ere beren esku dago.

# MAIATZAREN 21ekoari KALE EGIN EZ, ETA KALEAN IZAN GINEN

**G**reba eguna izan genuen maiatzaren 21ean. Irakaskuntzan grebaren eragina nabarmena izan zen, baina oso ezberdina sektore, sare eta zonaldeen arabera.

Nafarroan grebak orokorrean jarraipen txikia izan bazuen ere, oihartzun handia izan zuen ikastetxe euskaldunetan, bai sare publikoetan bai pribatuetan ere.

EAEko irakaskuntzan grebalariei portzentaia %40koa izan zela kalkulatu dugu, oso nabarmena Haur Eskoletan (%95tik gorakoa), eta askoz ahulagoa sare pribatuan (%20koa.) EHU oso lan gutxi egin zuten, batez ere ikasle eta irakasle grebalariei esker.

EAEko sare publikoan %47k egin zuen greba eta herrialdeei dagokionez, Gipuzkoan %52koa, Araban %35koa eta Bizkaian %44koa izan zen.

Kontuan hartuz greba deialdi honen kontra gauzatu ziren alde guztietako erasoak, oso emaitza onak direla uste dugu.

Balorazio positiboa egitean ez dugu soilik kontuan hartzen grebalariei kopurua, baizik eta ondorengo aldeak ere:

- 21ean milaka langile atera ziren kalera krisialdiaren ondorioak salatzeke, lau hiriburuetako goizeko manifestazioetan 45.000-50.000 pertsonak parte hartu zutelako alde guztiek onartu dute, eta arratsaldekoetan beste horrenbeste izango ziren, herriz herri egin zirenetan. Ez zen izan egun normala, ez, eta inork ezin du esan aktibista gutxi batzuk egindako ekimenengatik sortu zela ez-normaltasun hori, izugarriko jendetza izan baitzen egun hartako protagonistak.

- Martxoaren 31an plazaratu zen greba deialdia. Harrez gero sindikatu deitzaileen aurka amaigabeko akusazio andana zabaldu zen (deialdi frentista, politikoa...), baina harrez gero ere krisiari buruz hitz egiteko era oso bestelakoa da. Deialdi honi esker ikastetxetan, lantokietan, herri eta auzoetan krisiaren eta sistemaren gaineko begirada aldatu egin da.

Boteretsuenei aurre egin beharraz hiritar asko eta asko jabetu direla segur gaude.

- Sindikatuok dagokigun tokian kokatu gara: egoera larriena pairatzen dutenen alde, langile guztien elkartasuna bultzatuz, gobernuen politikak salatuz eta aldaketa sozialak aldarrikatuz. Eguneroko lanek eta miseriek ezin gaituzte eraman ez etsipenera ezta gure zereginak ahaztera ere.

Barrikadaren bestaldean daudenak ere ez dira geldirik egon. Erasoetako bat aipatzearen hor ditugu gure ikuskari batzuen jarrera eta lehenbizikoz ezarritako gutxieneko zerbitzuak, aparteko komentarioa merezi dutenak. Sindikatuak jarritako helegiteari oraindik ez diotenez erantzun, hurrengo batean jorratuko dugu gaia.

Ez dugu lana amaitu, eta egindakoa ez dugu beti ondo egin, baina zalantzarik gabe, greba deialdi hau beharrezkoa zen eta ondorio positiboak ekarri(ko) ditu.



# JANGELAK GREBAN, HAU KALAPITA!

Jangeletako greba dela eta hainbat buru-hauste gertatu da ikastetxeetan. Ez da harritzekoa, EAEn, sare publikoko ikasleen %60ak (Ar-%45; Biz-%72; Gip-%52) bazkaltzen baitu egunero ikastetxean, portzentaia hori gero eta handiagoa delarik.

Eguerdiko denbora eskolan ematen denaren herena da askorentzat, beste bi herenak klase orduak eta atsedendiek osatuko lukete. "Eskolaz kanpoko" ekintzak egitekotan, noski, hein hauek txikiagoak lirateke. Argi dago ikasleek zeregina eskolan kurrikulum akademikoa jorratzean ez dela inolaz ere amaitzen.

Grebaren zergatiari buruz ezer gutxi esan dezakegu: langileek lan baldintza kaxkarrak pairatzea, jantokiak catering enpresen esku uztearen ondorio bat da, Hezkuntza Sailaren menpe zuzenean aritzen direnekin alderaturik, (enpresa horien nagusitasunak beste ondorio txarrak ere baditu garapen sostengarriaren eta janaren kalitatearen ikuspuntutik...). Bi multzo hauetako langile guztiek lan bera egiten dutela jakinda, zilegitasun osoa du soldataren parekatzea eskatzeak.

Greban plazaratzen ari diren beste eskaera batzuk, gure grebetan gertatzen den bezala, lan baldintzekin ez ezik, eskaintzen den zerbitzuen kalitatearekin zerikusirik zuzena dute: jardunak luzatzeak irakasleekin harremanak izateko aukera emango lieke jantokian gertatutako az tutoreak jabetzeko eta ikastetxetako proiektu batzuetan parte hartu ahal izateko; ratioak jaistera oso onuragarria litzateke giroa hobetzeko eta umeei aukera zabalagoak emateko...

Edozein zerbitzu publikoko greben antzera, jangeletakoak eragin zuzena du zerbitzu horren erabiltzaileengan, eta ikastetxetako zuzendariei eta jantokiko arduradunei ikastetxearen berrantolatzea dagokie. Ez da lan erraza izaten: grebarako eskubidea bermatu, ikasleen segurtasuna babestu, gurasoei informazioa luzatu... hainbat erabaki hartu behar dira denbora gutxian.

Ikasturtea amaitzeaz dagoela, gai honen inguruan sindikatutik hausnarketa pare bat plazaratu nahi ditugu:

- Antolaketa erak ikastetxe bakoitzaren


ezaugarriei egokitu behar zaizkie.

- Jantokiko langile guztiek greba egitekotan argi dago jangela itxi egin behar dela eta umeak ezin direla ikastetxean egon. Konponbideak izan daitezke eguerdian joan-etorri egitea edota jardun trinkoa ezartzea eta klaseak amaitutakoan etxera joan.

- Greba egunean jantokiko langile batzuk lan egiten badute ere, ezin dituzte grebalariak ordezkatu, hau da, monitoreen kasuan ezin dira ratioak aldatu eta monitore gutxi batzuk ume guztietaz arduratu; era berean ezin dira sartu bestelako errekursoak (irakasleak, gurasoak, hezkuntza bereziko espezialista hezitzaileak) lan hori betetzera. Ikastetxeak erabaki beharko du zeintzuk bazkalkide geratzen diren jantokian eta zeintzuk ez eta hori ere ez da erraza (garraiatuak, bekadunak, ...).

- Premia bereziak izateagatik hezitzaileekin batera bazkaltzen duten ikasleek beste ikasleek jasotzen duten trataera bera izan behar dute, besteei aplikatzen zaizkien irizpideen arabera geratuko dira ala ez jantokian, onartezina litzateke ume horiek soilik bazkaltzen geratzea.

Gurasoei egun hori kobratzea gehiegikeria da, (jantokietako araudiaren beste atal batzuk bezala), eta, era berean, grebaren eraginez eguerdian jarri bada garraio berezia, ezin zaio eskolari egotzi horren kostea, Administrazioak hartu beharko du bere gain.




## "KITATE TU PA PONEME YO"

Dagoeneko gauzatu da aulki-dantza Hezkuntza Sailean.

Deigarria (barregarria??) izan da kargua utzi dutenek egoera berrira egokitzeko egin duten lasterketa. Ez dakigu arbela-alergia, ikasle-alergia edo zer den, baina banakako batzuk baino ez dira ikastetxera bueltatu.

Kontrako norabidean emandako igoerak ere meteorikoak izan dira. Azken botere banaketan sindikalgintza mundutik jauzia eman dutenen zerrenda ez da txikia izan: kabinete buru, langile kudeaketarako zuzendaria, prentsa buru... Ez da erraz ulertzen mahaiaren alde batetik bestera pasatzeko batzuen trebetasuna. Agian lan-akordioa sinatu zutenek azken bi urte hauetan azaldu duten administrazioarekiko atxikimendua "meritu-lehiaketan" ongi baloratua izan da.



Garbi dagoena zera da, sindikalgintzatik administrazioa jauzi zuzena egin dutela. Eta ez da izan langileriak boterea eskuratu duelako, "prexixamente".

Zalantzarik gabe, eskubide osoa dute jauzi hori egiteko, baina besteok gure kritikak adierazteko ere, besteak beste aurretik izandako zenbait jokabide ikusita. Ez da erraza ahaztea gehiengo sindikala eta burutu ditugun mobilizazio guztien aurkako beligerantzia, edota hizkuntza eskakizunen kontura izan dituzten jarraera atzerakoiak eta klientelistak.

Eta orain, zer? Nola jokatu behar dute mahaiaren bi aldeetan eserita? Dr. Jekyll eta Mr. Hyde? Gobernuaren sindikatua? Sindikatuaren gobernu?

Gure ikerketa zerbitzuak ezagutu ditu Hezkuntza Sailak langileak animatzeko burutuko duen lehen kanpainaren leloak: Gora pizgarriak! Aupa finkapena! Biba irakasle karrera! Denok gara administrazioa!!

Eta egunero, bostetan, tea! Of course!

## LAN AKORDIOA IRAUNGITZE DATA: 2009KO ABENDUA

Bai lagunak, yogurrak bezala, daukagun lan-akordio txar honek ere "kadukatuko" du urte honen bukaeran. Urrun gelditzen dira orain dela bi ikasturte burutu genituen grebak eta CCOOek egindakoa, bere sinaduraren bitartez gehiengoaren ilusioak zapuztuz eta hainbat gairen inguruan akordio antzua bideratuz (adinaren araberrako murrizketak, garai hartako estabilitatea,, baliabide iraunkorrak...).

Lan akordio berri baten negoziatioari heldu beharko diogu, beraz, datorren ikasturtean. Bitartean proposamen asko jaso ditugu zuengandik, ideiak eta iradokizunak mahai gainean jartzeko.

Zer eskatzen diogun hurrengo akordioari? Hasteko, honakoa:

- Oraingoak dituen alde atzerakoiak gainditzea: pizgarriak bertan behera uztea, ordezkoen egonkortasuna bermatzea, lanpostu zerrendak handitzea, ordu lektiboak murriztea, baliabideak gehitzea ...

- Irakasle guztion lan baldintzak hobetzea eguneroko beharrei modu egokian erantzun ahal izateko, eta Eskola Publikoa indartzeko.

- Gehiengo sindikalak sinatuta izatea.

Nola lortuko dugun hau? Betiko formulak erabiliz, borroka eta batasuna: denok arraunetan norabide berean denona den txalupa nahi dugun helmugara iritsi dadin. Lortuko ahal dugun!

**EZ GAUDE KONFORME**

akordio hau?  
ez, eskerrik asko

STEE-EILAS

baliabide berdinekin gero eta lan handiagoa  
lan baldintzak hobetu, eskola publikoa indartu

# EPE, EPAIMAHAIK ETA TXAPUZAK

Aurtengo oposaketan epaimahaietan parte hartzeko hautatuak izan diren irakasleek Pertsonalgo Zuzendaritzatik gutun bat jaso dute ekainean zehar epaimahaiak egin behar dituzten eginkizunen berri emateko. Honako hauek dira egutegia eta eginbeharrak:

EGUNA	EGINBEHARRA
Ekainaren 1etik 5era (astelehen - ostirala, arratsalde)	Epaimahaien osaketa
Ekainaren 12a (ostiral arratsalde)	Aurkezpen ekitaldien prestaketa
Ekainaren 13a (larunbat goizean)	Aurkezpen ekitaldia
Ekainaren 17a (asteazken arratsalde)	Epaimahai guztien bilera IVAPeko pertsonalekoekin, Lakuan
Ekainaren 20a (larunbat goizean)	Azterketa idatzia BECen
Ekainaren 24a	Oposaketan ahozko frogaren hasiera

**E**paimahaien eraketa egunetik ekainaren 24ra arte, epaimahaikideak bi egunez eta soilik arratsaldean (ekainaren 12an eta 17an) faltako direla ikastetxeetan jakinarazten da jarraian.

Horrek esan nahi du Sailak ez duela inongo asmorik ordezkapenak izendatzeko eta, ondorioz, irakasle hautatuaren hutsuneak ikastetxeak berak bete beharko dituela.

Gainera, irakasleen partehartzea epaimahaietan oso baldintza txarretan emango dela esan nahi du, ohizko eskola-eginbeharrei lan zama handia gehitzen zaielako, ekainaren 23rako ikasturtea itxiztat eman beharrak sortutako estresarekin eta inongo ordu konpentsaziorik gabe.

Irakaskuntzan murgilduta gaudenoi ez digute gogorarazi behar data hauetan ikastetxeetan zein saltsetan ibiltzen garen: irteerak, txostenak, gurasoekin elkarrizketak, ikasturte bukarako bilerak eta klaustroak, memoriak, gelaren

jasotzea... Dirudienez, Sailaren arduradunei bai gogorarazi behar zaiela.

STEE-EILASetik exijitzen diogu pertsonalburu berriari bere aurrekoak gai honi buruz hartutako neurriak birplanteatu eta behar diren baliabideak jar ditzala, hau da, frogaren hasiera baino 15 egun lehenago ordezkapenak izendatzea. Helburuak bi izango lirake: alde batetik, data hauetan ikastetxe afektatuen dinamika kalteua ez izatea, eta bestetik, epaimahaietarako irakasle izendatuak bere lana ahal den baldintza onenetan egitea, hau da, ezezaguna eta erantzukizun handiko lanari denboraz eta lasaitasunez aurre egin ahal izatea.

Okerrak zuzentzea jakinduriaren seinalea omen da eta horretarako denbora badagoela uste dugu. Gogoia besterik ez da behar. Zain gaude.

# EUSKARA, IKASTOLAK ETA FESTAK

**O**spatu dira aurtengo Herri Urrats, eta Ibilaldia, eta iristear da Araba Oinez. Ohi bezala, jende andana bildu da lurraldeka ikastolek antolatzen duten festetan. Eta ospakizunei atxiki gabe, batzuk jai horietatik ospa egiteko aukeraz baliatu gara, txanparik hartu gabe eta korrontearen aurka.

Ez da berria STEE-EILASen eta ikastolen festa hauen arteko "desenkuentroa", hobeto esanda, aspaldikoa da gure sindikatuaren eta ikastola kontzertatuen zenbait planteamenduen arteko talka.

Eztabaida antzuetan hasi baino, garrantzizkoagoa deritzogu hausnarketarako ideia batzuk plazaratzea, gure herri santu honetan "mitoaz" ere hitz egin daitekeela, edota ez dagoela zergatik bat egin beharrik pentsatzen dugulako.

Ikastolen aitzindaritasuna eta errekonozimendua. Historikoki bete zuten lekua, arazo, oztopo eta traben gainetik, ez du inork zalantzan jartzen. Gainera, gizarte mailan eta administrazio mailan (EAEn bereziki) hori guztia aitortu zaielakoan gaude. Agian ez beraiek nahiko luketen moduan eta mailan, baina hori beste kontu bat da.

Sorreratik egun arte, bere egitura egokitu dute legeek uzten zituzten aukeren baitan, eta zenbait erabaki garrantzitsu hartu dituzte. Horien artean estrategikoena, juridikoki sare kontzertatu-pribatuan kokatzearena izan da. 1993an erakunde bezala Konfluentziaren legeari ezetza ematea gure arteko desadostasunaren isla argigarria izan zen. Sare publikoan edo pribatuan kokatu beharreko unean denok dakigu zein bide hartu zuten, onerako eta txarrerako. Eta dirutza ederra jaso zuten.

Aipamen berezia, eta gure txaloak, prozesu honetan euren benetako publikotasunaren aldeko apustua egin zuten ikastola eta pertsonentzat. Arrazoi ekonomikoak ere izan ziren kasu batzuetan. Baina mingarria izan zen zenbaitek (ikastolen federazioaren laguntzaz eta amarruz) azaldutako gaitasun demokratiko eza bozketen emaitzak onartzeko.

Ikastolen eredia ez da gurea. Ikastolak omen dira euskal hezkuntza sistemaren eredu eta oinarri. Zergatik? Batzuen aburuz "propioak" direlako,

"herriak sortutakoak"... Euskal Herri osoan hedatuak daudela gaineratzen da, herrigintzan ekarpen berezia eginez. Ez dira, gure ustez, hezkuntza sistemaren ardatza bihurtzeko ezaugarri nahikoak. Beren proiektu propioa garatzeko publikotasunari ihes egitea izan da eta da espresuki bereizten gaituena. Euskal Eskola Publikoaren defentsak apustu argiak eskatzen ditu. Badakigu gaur egungo eskola publikoak baduela zer aldatu, hobetu eta zuzendu. Baina zerbitzu publikoen lehentasuna aldarrikatzeak hauek behar duten laguntza, babesa eta sostengua ematea exijitzen du. Publikotasunaren kontzeptuaz hitz egin behar dela? Bai, noski, baina zerbitzu publikoek duten trataera berbera eskatu aurretik, ez legoke batere gaizki gizartearen beharrei irizpide publikoekin erantzutea. Eta hori, orain arte, ez ikastolek, ezta sare pribatuko gainontzeko ikastetxeek ere ez dute egin.

Euskara eta ikastolak. Ez gatoz bat ikastolak - euskara binomioak adierazten duen patrimonializazioarekin. Euskarazko heziketa ikastoletan hasi zela? Ebidentzia da. Baina nork erantzun dio nagusiki azken 30 urteetan ikasle guztiak euskalduntzeko erronkari, lurralde guztietan eta etapa guztietan? Nork egin dio aurre behar handienak zituzten sektoreen euskalduntzeari, zailtasunak edota behar bereziak zituzten ikasleen eskolatzeari, etorkinen eskolatzeari? Euskalduntzean ere badirudi aspaldian galdu zutela lekukoa ikastolek, populazioaren gehiengoari erreparatzen badiogu behintzat. Datu batzuei begiradaxoa ematea interresgarria litzateke. Ba al zenekiten EAEn euskarazko irakaskuntzaren herena inguru besterik ez dutela betetzen ikastolek? Edo irakaskuntza osoaren % 11 ordezkaten dutela? Ez al da desproporcionatua sarritan adierazten duten "biktimitismoa" diru kontutan?

Euskara guztiona da eta guztion elkarlana ezinbestekoa da bere etorkizuna bermatzeko. Ez gara itsuak eta badakigu Nafarroan eta Iparraldean gure hizkuntzaren egoera are larriagoa dela. Iritziak iritzi, eta batzuk dominak eraman arren, asko gara lan horretan ari garenak. Espero dezagun gero eta gehiago izatea.

## LAN OSASUNA

Ikasturtea bukatzean dago eta Lan Osasunaren gaiari dagokionez, aldaketarik ez. Ikasturte honetan, azkeneko urteetako ohiturei jarraituz eta legeak hiruhilabetearen behin komitea bildu behar dela dioen arren, Lakuan, Lurralde eta sektoreen arteko Osasun eta Segurtasun Batzordea behin bakarrik bildu da.

Lurraldetako batzordeak ere ez dira atzean gelditu, bilera bakarria lurralde bakoitzean.

Tratatzeke gairik ez dagoelako ez da izango!.

Lakuan burututako bilera bakar hori, abenduaren hasieran izan zen eta bertan STEE-EILASEk planteatutako hainbat gai erantzun gabe gelditu ziren, besteak beste:

- Ordezkoen azterketa medikuak. Finkoa den langileen artean askok urteak pasa badituzte mediku azterketarik egin gabe, hemendik hara ibiltzen diren zenbait ordezkoek sekulan ez zaie tokatu. Idatziz proposamen desberdinak bidali bagenituen arren, ez dugu administrazioaren aldetik inongo mugimendurik ikusi. Datorren ikasturtean ordezkoek edota arrazoi desberdinengatik azterketa medikua egitea ezin izan dutenei egiteko aukera eman behar dietela uste dugu. Legeak markatzen duen eskubidea da eta.

- Gaixotasun kronikoak dituzten langileen Lanpostuen egokitzapena. Gai hau ez da berria, gure sindikatuak urteak daramatza gai honen atzetik, eta irakaskuntzan langileak birkokatzea ezinezkoa dela erantzuten digute behin eta berriz. Guk argi daukagu gaur egun eskolak dituen erantzukizunei aurre egiteko langile guztiak ezinbestekoak direla eta beste funtzioak ematea posible dela. Badakigu gai hau ez dela Batzorde honetan konpontzekoa bakarrik, baina pausoak ematen hasteko garaia da.

- Arrisku ebaluaketak. Oraindik denak bukatu gabe daude eta informazioa pasa gabe noski!

- Arrisku psikosozialen ebaluaketak. Ikasturte honetarako proiektu pilotu bat martxan jartzeko asmoa omen zuten, berririk ez!

Jakin, badakigu gaia ez dela makala, batez ere ebaluazioak egin eta gero ezarri beharko diren konpontzeko neurriengatik. Hala ere, gure ustez ez bakarrik legeak osasunarekin lotuta dauden aspektu guztiak neurtu behar direla agintzen duelako, baizik eta bai langileentzat bai gure eskolaren funtzionamendurako, langileen osasunaren babesa ezinbestekoa delako, ebaluaketak aspaldi eginak egon beharko ziren!

Ikusten denez, ikasturteak joan ikasturteak etorri, Lan Osasunean, zaharrak berri.

## HEZKUNTZAKO DELEGATUA IZAN NAHI DUZU?

Argi utzi behar da ez dela txantxa bat ezta telebistako lehiaketa ere ez. Seriotan gabilta, nahiz eta, ondo aztertuta, asuntoa barregarria izan.

Hezkuntza Sailak ekainaren 1eko EHAAn deialdi publiko bat argitaratu du hiru lurraldeetan lurralde-ordezkarien lanpostuak betetzeko. Hemen bukatzen da alde serioa eta txantxa hasi.

Ondo ulertzeko: lanpostuak izendapen askeko sistemaz betetzeko direla esaten dute hasieran eta guk galdetzen dugu: zergatik egiten dute lehiaketa publiko bat izendapen askeko sistemaz betetzeko badira?

Jarraian meritoen baremoa ezarzen dute, baina meritu bakoitzari ze balore emango zaion zehaztu gabe. Zertarako jartzen dute puntuaziorik gabeko baremoa?

Bukatzeke, eta hau negargarria da, baldintzen artean administrazioko 3. hizkuntz eskakizuna eskatzen da, betetzeko datarik gabe (gure HE2ren antzekoa). Hau da, lurraldeko ordezkarria izan daiteke euskara maila akademikorik gabea.

Harritzekoa da baldintza hauekin inor aurkitu ez izana lanpostu hauek betetzeko!

# ZERBITZU MINIMOAK ETA KONTZILIAZIOA

Orain arte hezkuntzan deitutako greben aurrean administrazio desberdinek jarri dituzten zerbitzu minimoak aldatuz joan dira; gehiengutan ez da izan zerbitzu minimorik, beste batzuetan zuzendaritzakoen presentzia ziurtatu behar izan da ikastetxeetan...

Maiatzaren 21eko greban gobernu berriak, 48 ordu baino gutxiagoko epean, gehiegizko zerbitzu minimoak inposatu zizkigun: haurreskolan plantilaren %25a eta Haur eta Lehen Hezkuntzan lau gelako irakasle bat, gehi zuzendaritza taldeko norbait.

Gehiegikeri honen ustezko helburuak ziren, alde batetik, normaltasunez lan egin nahi zutenen nahia errespetatzea (greba egin nahi zutenena bermatu ez zen bezala, zerbitzu hauek betetzera joan behar izan zutelako), eta bestetik, lana eta familiaren arteko kontziliazioa.

Paradoxikoa da kontziliaziorako neurria greba egun bateko zerbitzu minimoen ezarpena izatea. Erraza eta merkea benetan!

Ez dezagun ahaztu Haurreskolak-Patzuergoaren 0-2 urteko plazen eskaintzak dagoen eskaeraren %30ari besterik ez diola erantzuten. Ez da inolaz ere nahikoa ezta doakoa ere.

Zer beste neurri hartuko du gobernu honek, urtero plazarik gabe geratzen diren edo neurri-gabeko kuota ordaintzeko ahalmenik ez duten familia horiek guztiek urtean zehar lana eta zaintza kontzilia dezaten?

EILASen, zerrenda luzea dugu bizitza familiar, laborala eta pertsonalaren kontziliazioa errazteko: 0-2 urteko plaza publiko eta doako nahikoak eskaera guztiari erantzuteko; jangelarako plazak, eskatzen duen ororentzat, bai egunero bazkaltzeko baita puntualki ere; eskola orduz kanpoko doako ekintzak... Hau da, zerbitzu publiko eskaintza nahikoa, kalitatezkoa eta doakoa.

Era berean, beste neurri batzuk ere baditugu gure zerrendan, besteak beste famili arrazoiengatik hartzeko lizentzia eta baimenak: jaiotza, adopzioa, harrera, mendekotasunean dauden

pertsonen zaintza... Neurri hauek arduraren parte-katua bultza dezaten gizonezkoek ere hartu behar dituzte. Urtero ikusten dugu emakumeek bakarrik hartzen dituztela holako lizentziak, joera hori zuzentzeko proposamen zehatzak egon badaude.

Gobernu berri honek, gai honekin oso sentibilizatua dagoelako greba eskubidearen aurka jo duena, aipaturiko neurriak aintzat hartuko dituela espero dugu.

Zerbitzu minimoen agindura bueltatuz, greba konbokatuta genuen sindikatuok helegitea jarri eta kautelazko etenaldia eskatu genuen; etenaldirik ez, eta helegiteari erantzunik oraindik ere ez.



## LABURRAK

Ekainaren hasieran gaude eta lerro hauek idazterakoan, Hezkuntza Sailak jadanik martxan jarrita eduki beharko lituzke hainbat prozesuri buruz oraindik ez dugu inolako zirriborrorik jaso:

- Ikasturte hasierako ebazpena.
- Esleipenen egutegia.
- Finkapenaren agindua.
- Autodesplazamenduak.
- Lizentzia ez ordainduak.
- Zerbitzu Eginkizunetan ateratzen diren hainbat lanpostu:
  - Hezkuntza laguntzeko zerbitzuetan (Berritzegune, Ceida..)
  - Sukarrieta

Egun hauetan deialdi, agindu edo ebazpenen zirriborroak aterako direla uste dugu, baina esan beharra dago, hain atzeratuta dabiltzanez, sindikatuok alegazioak egiteko daukagun epea oso murrizta izango dela, horrek dakarren ondorioekin, hau da, aztertze eta ekarpenak egiteko oso denbora eskasa, askotan egun oso bat ere ez.

Badirudi, momentuz, Hezkuntza Saila berriak aurreko Departamentuaren "ohiturak" mantentzen dituela.

## BESTE BERRI BATZUK

- Euskal Eskola Publikoaren Jaia Bergaran ospatu zen ekainaren 7an eta STEE-EILAS, beti bezala hantxe egon zen.
- Eskola txikietako jaia: Berrobin ekainaren 14an.
- Maiatzaren 21eko grebaren gure liberatuen dirua, beste batzuetan bezala, EILASTASUNA FONDOAN sartuko dugu. Aurrerago zehaztuko dugu zein proiektuan.



## AMAITZEAR DAGO IKASTURTEA. BAZEN GARAI A!

Halaxe da! Beno, ikasturtea bai, baina lanak ez. Zuzendaritza taldeetako kideei nahikotxo gelditzen zaie oraindik. Martxa honetan erlojuek baino ordu gehiago sartuko dute. Galgaren bat jarri beharko diogu gaiari hurrengo akordioan, ezta? Baina ez dira bakarrak izango. Oposizioak egin behar dutenei eta epaimahaietan egongo direnei ere gelditzen zaie oraindik pixka bat. Animo!

Eta amaieraz, zer esan? Urteroko zurrunbiloari aurre egingo diogulakoan gaude. Ez dakiguna zera da, ea gure agintari berriek onik aterako diren (beraiek seguru baietz, besteok auskalo nolako ondorioak izango ditugun!). Goiko laburretan ikusten den moduan, arrapaladan dabilta ebazpen, agindu, arau, izendapen eta gainontzeko jardun administratiboan. Espero dezagun sorpresa berezirik ez izatea.

Edozein modutan, opor onak izatea opa dizuegu. Zoritxarrez, tarte motzago izango dute ordezkoe, hauen esleipen prozesuak abuztuaren 17tik aurrera hasiko baitira.

Motzagoa edo luzeagoa izanda ere, ongi irabazitakoaz gozatu eta indarberriturik bueltatu, dena beharko dugu eta!

# nafarroa

## KONTRATATZEKO ZERRENDAK KUDEATZEKO ERA BERRIA

Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak behin-behineko kontratatze-ko zerrendak kudeatzeko araudi berria ezarriko du, sindikatuekin adostu gabe. Hemen duzu Foru Agindua zirraborroaren laburpena.

Lau zerrenda mota izango dira:

### 1.- Plazarik gabe OPE gainditu dutenen lehentasunezko zerrenda.

- Hurrenkera honetan izango da Oposizioa nota orokorraren arabera (oposizioa +lehiaketa)
- Hurrengo oposiziora arte iraungo du.

### 2.- Izangaien zerrenda orokorra

Hurrengo oposiziora arte iraungo du eta zerrendan sartzeko eskakizun hauetako bat bete behar da:

- Gutxienez 1go azterketara aurkeztu. Oposizio fasean puntuazio positiboa lortu eta espezialitatean eskatzen den titulazioa izan. Hurrenkera honetan izango da Oposizioa nota orokorraren arabera (oposizioa+lehiaketa)

- Deialdia egin den ikasturtean zerrenda batean egon eta oposizioan beste espezialitate batera aurkeztu eta puntuazio positiboa eskuratu.

Hurrenkera: Oposizioan esperientziari dagokionaren arabera (%40).

- Deialdia egin den ikasturtean kontratu bat izan eta oposizioetara ez aurkeztu. Ez dute punturik eta hurrenkera: oposizioa epaimahaien aukeraketan eta aktuazio ordenaren arabera alfabetikoki ordenatuak. Kasu honetan "HL" hizkiak Haur eta Lehen Hezkuntzan.

### 3.- Deialdi espezifiko bidez egindako izangaien zerrenda.

Web eta prentsaren bidez egingo da. Eskatzen den titulazioa eduki eta apuntatu. Titulazioen eta espediente akademikoaren

araberako hurrenkera izango du. Deialdi bat baino gehiago baleude, deialdi berrikoak aurretik zeudenen atzetik egongo lirake.

Gaur egun dauden behin-behineko kontratatze izangaien zerrendak indarrean segituko dute beste deialdi espezifiko bat egin arte.

### 4.- Enplegu zerbitzu publikoen bidez (INEM) deialdi propio batez osatua.

INEMen apuntatua egon eta bertako hurrenkera. Urtebeteko iraupena.

Kontratu bat onartzen dutenak zerrenda orokorrera pasatuko dira, baina puntuaziorik gabe.

#### OHARRAK:

Hornikuntza zaileko lanpostuak 3 ikasturterako eskainiko dira: Erronkari, Otsagabia, Garralda, Luzaide eta Zugarramurdi.

Behar bezala justifikatutako errenuntzia egin daiteke Foru Aginduan agertzen den eran. Aldez aurretiko errenuntzia, maiatzaren lehen hamabostaldian.

Zerrendetatik kanporatzeko kasuak ere aipatzen dira.

# GAROÑA ITXI!

Burgoseko iparraldean kokatuta eta Araba zein Bizkaitik oso km gutxira dagoen Santa María de Garoñako zentral nuklearra 1971ko martxoaren 2an konektatu zuten sare elektrikora. Tarragonako Vandellos (1989an, istripu baten ondorioz), eta Guadalajarako Zorita (2002an, Diputatuen erabaki politikoaren ondorioz) itxi ondoren, Garoña jardunean dagoen lehen belaunaldiko zentral nuklear bakarra bilakatu da.

25 urteko bitzta aurrekusi arren, 37 baino gehiago dauzka. Nahiz eta Nuclenorrek nahikoa eta soberan amortizatu duen, enpresak 2006an Industria Ministerioan beste 10 urteko luzapena (2009tik 2019ra arte) eskatu zuen, 48 urtetan kokatuko zuena.

Ustiapen baimena hurrengo uztailaren 5ean bukatzean, eta nuklearren aldekoa den Consejo de Seguridad Nuclear delakoaren txosten teknikoa eza-gutu ondoren, Espainiako Gobernuak erabaki behar du beste 10 urteko luzapena onartzen duen edo, berriz, zentral nuklearrak ixteko agindua eman eta bere hauteskunde promesak (2004 eta 2008koak) betetzen dituen.

PSOEk 2008ko hauteskundeetarako programan energia nuklearraren uzte progresiboa proposatu zuen: "Mantendremos nuestro compromiso de sustitución gradual de la energía nuclear por energías más seguras, más limpias y menos costosas, que se llevará a cabo e forma ordenada en el tiempo, dando prioridad a la garantía, a la seguridad y con el máximo consenso social". Orain dute promesa hori betetzeko unea, estatu espainiarraren zentral nuklearrak zaharrena itxiz. Hala ere, orain aste batzuk Zapaterok neurtutako anbiguasunez erantzun zuen: "Debemos mantener un principio de que las centrales nucleares cumplan la vida útil y a partir de ahí evaluar las posibilidades que existen

si hay riesgos para la sociedad de abastecimiento energético, de la dieta energética (...) cuando conozcamos el informe del Consejo de Seguridad Nuclear, lógicamente el Gobierno tomará su decisión (...) tomaremos una decisión acertada en torno a Garoña".

STEE-EILASEk beti hartu du parte aktiboki nuklearren kontrako mobilizazioetan eta, bereziki azkenetan, gure zalantzazko presidenteari hauxe gogorarazteko: Garoñaren itxiera ez dagoela Consejo de Seguridad Nuclearraren esku, baizik eta haren erabaki politikoaren baitan eta beharrezko premia bat ere badela, zentralaren istripuak eta segurtasun ezaren historia kontuan hartuta.

Garoñak izandako hamaika gertakarik eta gorabeherak zentralaren zahartzea eta bitzta erabilgarriaren agortzea erakusten dute. Horren adibide garbia da urte bakar honetan Garoñak jada 9 arazo eta ez programatutako geldialdiak daramatzala: datu nahikoa horren behin betiko itxieraren aldeko apustua egiteko.

Hala ere, "la central de las mil y una grietas" ezizena eman dioten pitzadurak eta hondaketa egoera penagarria aintzat hartu gabe, enpresak (Iberdrolak) horren funtzionamendua luzatu nahi du nuklearraren aldeko presio taldeen interesei men eginez.

Egoera honen aurrean, STEE-EILASEk baieztatu nahi du Garoñaren gaineko aukera koherente eta bideragarri bakarra horren berehalako itxiera dela, haren narriaduragatik eta ekartzen duen arriskuagatik. Hau da, erabaki egoki bakarra da haren behin betiko itxierari ekitea bere ustiapen baimena bukatutakoan.



# ESKOLA PUBLIKO LAIKOA

Ikasturte honetan eskola laikoaren alde lan egin dugu eremu ezberdinetan: Hezkuntza Sailarekin erlijio arloaren eta erlijio irakasleen inguruan hausnarketak eta alegazioak egin ditugu, beste giza eragileekin batera Eskola Laikoaren Aldeko Plataforman parte aktiboa izan dugu eta matrikulazio garaian seme-alabak erlijio klaseetan ez apuntatzeko kanpaina bultzatu genuen.

Erljio ikasgaia nahitaez eskaintzekoa da eta borondatez aukeratzekoa, nahiz eta fedea eta ebanjelizatzaile proiektua jorratzen dituen dotrina bat izan eta, kasu askotan, pertsona guztien oinarritzko eskubideak, indarrean dagoen arautegia eta zientifikoki frogatutako aitopenak ez diren aintzat hartzen (genero berdintasuna, harreman afektibosexuala, gaixotasunen prebentzioa, etab.).

Erljioko irakasleek diru publikoarekin kontratatu eta ordaintzen da, baina urtero egiten den hautagaien aukeraketa eskubidea eliza agintarien esku dago (apezpikutza katolikoek kasuan).

Hau guztia dela eta, uste dugu eskola ez dela tokia doktrina erlijiosoa hedatzeko. Gainera, erlijioak gure hezkuntza sisteman duen statusari diskriminatzailea dela deritzogu irakasgai hau jasotzea nahi ez dutenen kasuan: nahikoa da eskakizun bat egotea irakasle bat jartzeko ordutegi barruan, eta besteek ezin dute eduki curricularretan aurrera egin.

## Gure proposamena

### Hezkuntza komunitatean:

Jarraitu gai honi buruz eztabaidatzen klaustroetan, Guraso Elkarteetan edo eta eskola patioetan.

Azaldu irakasgai honek eten egiten duela eskolako taldeen ohiko funtzionamendua eta murriztu egiten duela beste arlo batzuetan ikasketa curricularrak garatzea.

Zure zentroan sustatu hezkuntza proiektu lai-

koa, pertsona orori balore komun unibertsalak emango dizkiona.

### Aita edo Ama bazara:

Ekidin zure seme edo alaba taldetik banatua izatea sinesmen erlijiosoengatik, beraz ez apuntatu zure oinordekoa erlijio klasean. Apuntatuta balego, orain da momentua zure aukera aldatzeko zuzendaritzari edo tutoreari jakinaraziz.

### Irakaslegoa:

Eskaintza alternatibo erakargarria luzatu ikasleei eta beraien familiei. Egokiena zentro guztia- ren parte-hartzea izango litzateke proiektu honetan, baina ez bada posible, ahalegindu zure zikloan edo mailan, edo zure taldean aplikatzen.

### Erljioko irakaslegoa:

Talde hau animatzen dugu irakasgaia utz dezan eta irakaskuntzako beste alor batzuetan aritzera pasa dadin; horretarako badute titulazioa eta gainera sententzia judizial batzuen bitartez onartzen zaizkie egindako zerbitzuak ordezko gaien zerrendan eta oposaketetan. Beraz, aukera daukate

jarduera hau uzteko (egon behar ez lukeena) eta beren lan baldintzak homologatzeko (kexa asko izan baitira, nahiz eta bigarren hezkuntzakoak laboral finko bihurtu) beste irakasleekiko.

Erljio katolikoaren pribilegio egoera hau guztia Egoitza Santuaren Akordiotik datorkigu (1953 eta 1976-1979) eta indargabetua izan beharko litzateke gizarte eta eskola demokratikoago eta berdintasunezkoagoa lortzeko.



# Denontzako kalitatezko hezkuntza publiko baten aldeko manifestua 2009ko apirila

Guk, irakaskuntzako profesionalak, mugimenduak, elkarteak, sindikatuak eta gizarte zibileko kideak, Europar Jendarte Foroko partaideak garenok, Europako parlamenturako hauteskundeetako hautagaiei dei egiten diegu:

1. Hezkuntza, pertsona guztien bizitzetan eragina duen giza eskubide besterenezina da, baita bere osotasunean lehentasuna duen zerbitzu publikoa ere.

2. Beste hainbat eskubidetara iristeko, eta elkartasuna, emantzipazioa eta hiritartasunaren praktikan oinarritzen diren baloreak eraikitzeko ezinbesteko eskubidea da.

3. Politika publikoek ziurtatu behar dute eskubide horiek burutzen direla.

4. Administrazio publikoen zeregina da maila eta urrats guztietan, haurreskolatik unibertsitate-ra, diskriminazio eta bazterketarik gabe, hezkuntza publiko eta emantzipatzailea izateko eskubide osoa, modu libre eta unibertsalean, bermatzea.

Arrazoi horiengatik, irakaskuntzan eta heziketan ematen diren politika neoliberal guztien kontra agertzen gara:

- Hezkuntza merkatuaren beharren menpe jartzea.
- Irakaskuntza langileen prekarizazioa.
- Giza desberdintasunak indartzea.
- Gehiengoak kulturara iriste osoa izatea traba egiten dion curriculumaren pobretze eta ahultzea.

Ondoko arrazoiengatik, hezkuntzak, guztion eskubide besterenezina den moduan, kalitate handiko zerbitzu publikoa izan behar du:

- Gazteen garapena, gaitasunen sustapena eta arrakastagatik.
- Generoen arteko berdintasunagatik.
- Irakaskuntza langile guztientzako prestakuntza profesionalagatik eta kalitate handiko lan baldintzengatik.
- Hezkuntzarako inbertsio publikoaren handitzeagatik (gutxienez, BPGren %7).
- Pentsamendu kritiko eta hiritartasun aktibo batengatik.
- Goi mailako hezkuntza eta ikerketa sormenaren eta ezagueraren zabalkunde demokratikoaren zerbitzuan jartzeagatik.
- Behar bereziak dituzten ikasleak, inmigranteak eta errefuxiatuen integrazioagatik.
- Partehartzea, demokrazia eta haurren eskubi-

deengatik.

- Gerran gastatzen den diru kopurua gutxitu eta hezkuntzan erabiltzen dena handitzeagatik.
- Bakea, elkarlana, elkartasuna eta bazterkeriarik gabeko giza eskubideengatik.

Ikuspegi honetatik, eskolak, bigarren eta goi mailako hezkuntza-erakundeak, eta irakaskuntza eremu guztiak leku publiko demokratiko eta komun bilakatuko dira, zeinetan eragile desberdinei ongi etorria egiten zaien, onartuta eta baloratu dauden eta beraien arteko harremanak hazten diren.

Ekainean europar hauteskundeetako kandidatura guztiei deia zabaltzen diegu beraien programean Hezkuntzari lehentasuna eman diezaioten: hezkuntza publiko, libre eta kalitatekoa Europa sozial eta demokratiko batean.

# boletina

BOPV N°77 2009/IV/ 24

EBAZPENA, ordezkapenak egiteko izangaien zerrenda kudeatzeari buruzko jarraibideak onartu zituen.

EHA 78zb /2009/IV/27

AGINDUA, ikastetxeetako teknologia-heldutasunaren eredia finkatzen da eta ikastetxeek ICT arloan duten heldutasuna egiaztatzeko ziurtagarria nahiz zigiluak onartzen dira.

EHA 80zb /2009/IV/30

EBAZPENA, diru-laguntzak ematen zaizkie Irakasleen Etengabeko Prestakuntza Planeko (2008-2009) prestakuntza-ikastaroak gainditu dituzten irakasleei.

EHA 86zb /2009/IV/9

DEKRETUA, maiatzaren 8koa, lehendakariarena, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketako sailburua izendatzeko dena.

EHA 89zb /2009/IV/13

DEKRETUA, apirilaren 21ekoa, Euskal Autonomia Erkidegoko Eskola Bizikidetzaren Behatokia sortzen duena

EHA 90zb /2009/IV/15

EBAZPENA, ikastetxe publikoetan ordezkapenak egiteko hautagaien zerrenda kudeatzeari buruzko jarraibideak ematen dituena- aldatzen da.

EHA 98zb /2009/IV/28

EBAZPENA, Honen bidez, zuzendari berak 2009ko otsailaren 11an emandako ebazpena aldatzen da (Ebazpen haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozeduran onartutako eta kanpoan utzitako izangaien behin betiko zerrenda onartu zen).

EBAZPENA Ebazpena aldatzen da (ebazpen haren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko maisu-maistren kidegoan sartzeko hautaketa-prozedurako B.2) ariketaren ordezkari unitate didaktikoaren ezagutzak baloratzeko txostena egiteko eskatu eta eskaera hori onartu eta atzera bota zaien parte-hartzaileen behin betiko zerrenda onartu zen)

EHA 98zb /2009/IV/29

AGINDUA, Bigarren hezkuntzako lekualdatze

# hezkuntzako **laboral**ak

## 09/10 IKASTURTEKO AURREIKUSPENAK

Nahiz eta Berrikuntza Pedagogikoak azken urteotan "zero hazkundea" inposatzea nahi izan, errealitateak aurre hartzen du eta beste ikasturte batez derrigortuta ikusten dituzte haien buruak Hezkuntzako Laguntzako Espezialisten lanpostuak gehitzen.

Lehen aurreikuspenetan, bi lurraldeetan lanpostuak modu desberdinean gehitzen dira:

Arabakan: 4 plaza  
Bizkaian: 29 plaza

Gipuzkoan berriz, etxerako lanak ondo baino hobeto bete dituztela ematen du, bertan ordu gutxiko hamar lanpostu jardun osoko bi bihurtu dira. Ezin dugu ukatu zabor jardun hauen desagertzea pozten gaituela, baina gure ustez haiek kentzea ez da irtenbidea, beharrak aztertu ondoren, jardun erdiko edo osoko bihurtzea baino.

Baina lanpostuen gehitze hau ematen den herrialdeetan, ez doa bat errealitatearekin. Behar bereziak dituzten ikasleen beharrak gertu egotetik at, Heziketa Bereziko arduradunentzat, inklusioaren bertsioak "kasuen" taldekatze batera darama, "errekurtsoen kudeaketa hobetoagatik", hau da, behar bereziak dituzten ikasleak ikastetxe, gela eta jantoki berdinetan elkartu (adinak, taldeak eta jantoki txandak kontutan hartu gabe) hezitzaile, PT eta logopeda lanpostuetan aurrezteko.

STEE-EILAS-ek arduraz ikusten du ikasleen bereizketa hau, neska-lagunekin eta mutil-lagunekin harremanak zaildu egiten dituelako, autonomia lantzeko mugak jartzen dituelako eta hezitzaileentzat lan zama handitzen delako. Behar bereziak dituzten ikasleekin lan egiten dugun profesionalok ematen dugun erantzunez eta ekonomi irizpideak erabakiak hartzerako orduan ikasleengan izaten duten garrantziaz, hausnarketa bat egin behar genukeela uste dugu.

STEE-EILAS-ek borrokatzera animatzen zaituztegu, ikasle guztien inklusioaren alde, pertsonalgorri murrizketak eta neurri ekonomikoak onartu gabe, horrek guztiak ez duelako eragin baikorrik ikasleen arretan ezta Heziketa Bereziko langileen lan baldintzetan.

## BAKANTE GABEKO ORDEZKOAK

Gaurko egunez jarraitzen dugu uda kobratzeko eskubiderik gabe, nahiz eta ikasturtean zehar 165 egun baino gehiago lan egin. Badakigu jende asko dagoela egoera honetan, horregatik komenigarria iruditu zaigu langabezi prestazioaren eskaria egiteko behar diren baldintzak gogoraraztea:

- Azken sei urteetan edo azkenengoz prestazioa kobratu zenetik, lan eten egunera arte, 360 egun kotizatuak izan behar dira.

- Eskatzaile txartela izan behar da, non eskaera egiten den momentuan bideratu daiteke.

- Eskaera egiteko epea 15 egunetakoa da, igandak eta jai egunak zenbatu gabe.

- Aurkeztu beharreko dokumentazioa:

- Prestazio eskaeraren eredu normalizatu, lan zerbitzu publiko bulegoan ematen dutena.

- Nortasun agiria.

- Famili liburua.

- Enpresa ziurtagiria. Delegaritzan eskatu eta jasotzen dena.

- Banketxeko datuak.

- Lan etena (fotokopia eta originala).

Garrantzitsua da finikitoa kalkulaterakoan oporraldia 45 egunetakoa dela kontutan izatea.

# hezkuntzako laboralak

## GARATU

Martxoko aldizkarian azaltzen genuen bezala, Heziketa Bereziko Laboralok GARATU ikastaroetan parte hartzeko izan beharko genituzkeen aukerak ez dira inolaz ere bermatzen. Kontua ez da gaurkoa, aspaldikoa baizik. Gauzak horrela, eta gure kolektiboko langileen formakuntzak eta berriztatzeak duten garrantzia kontuan izanik, STEE-EILASetik proposamen bat luzatu genion joan den apirilean GARATUko arduradunari, ekaina baino lehen denboraz aztertzeko aukera izan zezaten.

Izan ere, gure Lan Hitzarmeneko 57. artikulua ez du zalantzarako lekuri uzten: "Hezkuntza Berriztatzeko Zuzendaritzak GARATU planean biltzen diren birziklatze-ikastaroetan (hezkuntza premia berezien eremuko ikastaroak badira) eta lanbide-jarduera egokia garatzeko beharrezko ikusten dituen bestelako ikastaroetan parte hartzeko aukera emango die hezitzaile guztiei, gainerrako parte-hartzaileei aplikatzen zaizkien baldintza eta irizpide berdinak arabera".

Eginiko proposamenean, inoiz ikastaroetan sarbiderik izan ez duten kolektiboetara ateak zabaltzea eskatu dugu baita Hezkuntza Laguntzako Espezialistek orain arteko eskaintza areagotzea ere.

Ikastaroz ikastaro aztertu ondoren, proposamena oso zehatza izan da 3 atal nagusitan banatuta: hezkuntza premia berezien eremuko ikastaroak, alde batetik; langileentzat interes orokorrekoak izan daitezkeen ikastaroak, bestetik; eta azkenik, hezkuntza ikastaroak.

Artikulu hau idazteko unean, GARATU ikastaro eskaintza argitu gabe dago oraindik. Gertu gertutik jarraituko dugu proposamenari ematen zaion erantzuna.

## LAN HITZARMENERAKO PROPOSAMENA

Ikasturtea bukatzean dago eta sei urte igaro dira: ez dugu lortu oraindik Hezkuntza Sailekoak lan hitzarmenaren negoziazioan gurekin esertzea. Egoera honetan egon arren, ez dugu amore emango, eta are gutxiago gure lan baldintzek azken urteotan okerrera egin dutenean.

STEE-EILASen argi daukagu aldarrikapen nagusiak ez direla aldatu:

- Ordezkoek uda kobratzea.
- Eros ahalmenaren berreskuratzea.
- Diplomatuentzako soldata homologazioa.
- Urteko jardunaldiaren murrizketa eta asteko jardunaldia zehaztea.
- Fondo soziala.

Hauetatik at, lan hitzarmenaren hobekuntzan badaude beste aldarrikapen batzuk. Horregatik lan hitzarmenaren proposamenak eguneratzen ari gara, afiliatuen herrialde asanbladak eginez, orain arteko lan hitzarmen proposamenak aztertuz eta proposamen berriak jasoz.

Epe laburrean Hezkuntza Sailarekin alde biko bilera bat izango dugula uste dugu, eta bertara eramango ditugu Hezkuntza Bereziko lan legepekoak dugun egoera eutsiezina eta lan hitzarmenaren negoziazioa hasteko premia.